

Zarama taldea euskaraz egindako rockaren ikonoa bilakatu zen laster batean. Ederki irabazita. Santurtzin sortu zuten Zarama taldea 1977an. Hasieran taldekideen sartu-irteerak izan ziren baziren ere, bizkarrezur trinkoa mantendu dela esan daiteke. Diskoaren aurretik bi single kaleratu zituzten: "Nahiko + Ezkerralde" kantuekin 1982an eta 1983an "Zaramaren erdian + Gasteizko gaua". Bi single arrakastatsu horiekin eman zion jausia diskora 1984an "Indarrez" diskoarekin eta disko mordoia etorriko zen ondoren eta taldearen abesti piloa jendearen ahoan. Nork ez du abestu "Iñaki, zer urrun dagoen Kamerun"? Euskal rock aipatzen den oro Zaramak bere tartea du. Zortzi disko grabatu ostean, hastapeneko euskarrira datoz azken diskoarekin, sinestezina bada, "Sinestezina" du izenburua hiru abestiko EP honek.

Zarama taldearen disko berria, dagoeneko bederatzigarrena, Santurtziko S.T.S. estudioan grabatu du Tontxu Tabares musikariak. Bir-masterizazioa Goyo Ruizen eskuetan geratu da. Languntzaile atalean, Alfredo Camesek perkusioa jo du eta Arantxa Barcelonak biolina.

Zarama taldearen bederatzigarren diskoak "Sinestezina" du izenburua. Hiru abestiko single-EP bat da. "Sinestezina" abestia 1998ko Ibiladira Urreztieta Konexion taldeak egin zuen, tartean ziren Zarama taldeko partaideak baina, orain, jatorrizko testua erantsi dio Zarama taldeak. "Bring a little lovig" abestia cover bat da, Vanda eta Young musikari ezagunena, hauek AC/DC taldearen hasierako lanen ekoizpenak sinatu zituzten, euskarazko ekarpena eskaini diote bukaeran. Rock and roll musikaren 60ko hamarkadan egiten zen bezala, gozamina belarrietarako duen melodia kontuan hartuta. "Jon & Jonhy Cash" abestia Cash abeslariari eskainitako disko bilduma batean argitaratu zen. Rockaren country ukituak ameriketakoa euskal baten kontuak dituelarik testuan. Beraz, Zarama taldearen hiru abesti horietan rock and rolla hiru ikuspuntu desberdinetatik aztertzen da. Zarama taldeak taula gainean bizirik sentitu nahi eta hoberena zuzenean jotzea.

ritxi aizpuru (2013ko apirilaren 30)

1.- Zarama taldeak "Sinestezina" diskoa argitaratzea oraindik bizirik dagoela eta segitu nahi duela helaraztea da?

Bai, Zarama taldearen betiko kutsuarekin gainera eta oraindik ere salatzeko gaiak, konposatzeko grina eta elkarrekin dibertitzeko gogoak baditugula esango dugu.

2.- Zarama taldearen EP disko honetan bertsio-cover bat (Bring a little loving), remake bat (Sinestezina) eta tribute bat (Jon & Johny Cash). Ez da egon abesti berriak egiteko aukera?

"Jon & Johny Cash" abestia berria da eta, zeharka bada ere, Johny Cash omen-du nahi dugu. Boiseko euskaldun baten nondik norakoak kontatzen ditu. Haren arbasoei entzundakoak ikustera etorriko da bere ametsetako Euskal Herrira eta konturatuko da gauzak goitik behera aldatu direla eta ez duela zer ikusirik entzundakoarekin. "Sinestezina" abestia Urreztieta Konexion taldeak grabatu zuen Muskizen egin zen Ibiladira, baina beti izan dugu gogoia jatorrizko testuarekin argitaratzeko, hor Euskal Herriko hainbat herritan jasan den hirigintza tamalgarriaz hitz egiten da. "Bring a little loving" kantuari dagokionez esan The Easybeats taldearena dela (AC/DC taldeko Young-en anaia zaharren taldea), Los Bravos taldeak ospetsu egingo zuena gure artean geroago. Gustukoa dugu jotzea entsaioetan eta orain lortu dugu grabaketa elebiduna egitea. Merkatua dagoen bezala ere singlearen filosofira itzuli nahi izan dugu. Edizio txikiak eta ugariak egin nahi ditugu, jenderengana hobeto helarazteko

3.- Zarama taldea rockaren aita ponteengana hurbildu bada (Cash, Young), zergatik izan da?

Zarama taldearen espiritua rock'n'rollaren aitaponteko asko izan dira: Feel-good, Stones, Berry, AC/DC, Los Lobos, Creedence, Blondie, Clash... . Beti egon gara hurbil, bai hauekin, bai beste hainbatekin, denbora pasa ahala gure gustuen esparrua ere handituz joan gara. Jon & Johny Cash, adibidez, gure lehen "country" kutsuko abestia da... Afrokubatarra den estilora ere gerturatu gara, euskal kantaldietara bezala, futbolinetako aretoetara etabar luzera...

Tontxu Tabares: gitarra
Xabier Alvarez: baxua
Ernesto Alava: bateria
Roberto Moso: ahotsa
Joseba Lafuente: teklatuak

